

LARRAUL

- Lanabes zaharren museoa

ANDOAIN

- Babes ofizialeko etxebizitzak
- Asfalto berria jartzeko lanak

ASTEASU

- Apaiz etxea berritzen

BILLABONA

- Kiroldegia itxura hartzen

ZIZURKIL

- II. Olinpiada txikiak

ELKARRIZKETA

- E. Arreseygor eta T. Landa artean adituak

KIROLA

- Arkaitz Morabide igerilaria
- Txirrindularitzari buruzko III. ihardunaldiak

1997ko urriaren 31a. 67. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

ORDU TXIKIETAN

ETXERA



fotocolor

ERREBELATUA ORDU
ERREBELATUA ORDU
EAN

Zure argazki
denda



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - 59 43 32
20.140 ANDOAIN

Egin zaitetz harpide!

» HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA-
LI GURE EGOITZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitatea Sukurtsala K.D.

Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko☐ : Laneko☐ :

1. AURKIBIDEA
AIURRITARRAK
Txomin Garmendia
"Amaia Agirre eta ni".
2. IRAKURLEAREN TXOKOA
3. LARRAUL
Lanabes zaharren museoa.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Babes ofizialeko etxebizitzak.
Asfaltoa herritzeko lanak.
Kirolegia handitzeko lanak.
7. ASTEASU.
Apaiz etxea berritzen.
- 8-9. BILLABONA.
Jaime Altuna intsumisioa epaitu dute.
Kirolegia itxura hartzen.
10. ZIZURKIL.
II. Olinpiada Txikiak.
11. BASERRIA.
EHNEk antolautako Europa mailako mintegia.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Ordu txikietan etxera.
- 14-15. ELKARRIZKETA.
Eduardo Arreseygor eta Toñi Landa artean adituak.
- 16-17. KIROLA.
Arkaitz Morabide igerilaria.
Txirindularitzari buruzko III. Kultur Ihardunaldiak.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. BETERRIKO LIBURUA/LEHIAKETA
20. AGENDA

«AMAIA AGIRRE ETA NI»



TXOMIN
GARMENDIA

Billabonatar neska jator bat degu Amaia Agirre, bertso-lari saillean eta euskal alorrean goraka dijoan landare gaztea ain zuzen. Arro nago baita ere, nere ikasle izan zalako alditxo batean. Aren ikasteko eta entzuteko gogoak poz ematen zun; egun batean esan nion ordea, "nik ez daukat zuri geiago erakusterik" eta ala banatu giñan. Orain, bere lan batek eman dit berriketaldi au osatzeko gaia.

Agorraren 26'ko AIURRI'n, zortzigarren zenbakian, Amaia'k zionez, Billabona'ta Amasa maillan sortutako euskera taldea da "Amabila"; bere eginkizunik nagusiena noski, euskera indartzea izanik, euskeraz jakin eta erderaz itzegiten duten oien jokacra aldatu naia ere bai, besteak-beste.

Zenbat erregu euskeraren alde? Zenbat jaialdi eta zabalkunde? Zenbat milloi, gure patrikatatik ertendakoak? Eta, zer ikusten degu? Amaika aldiz gogoratzen zait, "Uztapide" zainari bein entzun niona: "Emen, kastellanoz ondo ikasten du-nak, ez du euskerarik itzegiten". Milla adibide jarri litezke gerok ikusitakoak eta bizitutakoak, baiña zertarako? Aitortu nai badegu eta ezbadegu, gaztelera ikasten ari geran tamaiñan dijoa euskera gutxitzen eta narrasten eta kito.


Oraindik indar gutxikoa omen dago "Amabila"; indartzea opa diot benetan, baiña badet bildur bat, politika aldetik indartuko ote dan alegia. Euskerak politikatik aparte bizi bear luke neurri aundi batean behintzat, nere iritziz.


Billabona'ko Udalaren ekintza bat ere salatzen du Amaia'k; "Amabila"k, jaietarako egitaraua euskera utsean agertzeko erregua egin omen zion Udalari eta onek bi izkuntzetara argitaratu. Euskera-Talde orren eskaera jatorra iruditzen zait; baiña, ezdabaida asko sortzeko ekintza dala ere aitortu bear-ko degu. Billabona'n jaiotakoak aurkitu litezke, euskeraz ez dakitenak; erdaldun etorkiñak berriz zenbat diran Jaungoikoak jakin! Orduan!

Erriagintaritzza edo demokrazia ez pentsa zenbait gauzetarako ona danik; euskeraren aldeko indaragintaritzza edo diktadura bat ondo etorriko litzake gure izkuntzarentzako; gure ontan euskera bakarrik izan bazan, etorkin guztiak ere onuzkero bapo ikasita zeuden gure izkuntza. Bi izkuntzetan datoz Boletin eta inñungo agiri guztiak eta zer gertatzen da? Euskera utzi eta erderazkoa irakurtzen degula. Iñz da ikusten pre-mirik euskera ikasteko eta aurrera. Lenaz gainera, euskerari jarri dizkiogun zailatasunak ere or daude. Pelai Orozko idazle adiskideak itz auck esan zitun beingo batez: "Zein erri aundia eta zein erri zailla!".

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiarzabal eta Ainhoa Aizartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zu-billaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.






Txapela

Txirrindularitza oso gogoko dut eta mundiala etxe bertatik pasa den egun horietan zuzenetik ikusi eta gozatzeko aukera paregabea izan dut. Txirrindularitza gogoko ez dutenak traba asko jasan dituzte, hala ere gure herrian trafiko arazorik ez dela izan iruditu zait. Lerro hauen bidez, hesiak jartzen, informazioa ematen edota mundialak sortu duen edozein motatako lana burutu duten herritarrak zoriondu nahi ditut. Batzuk disfrutatu ahal izateko beste batzuk lan egin behar izan dute. Arrazoi horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuet mundialean lan egin duzuen guztioi.

A. O. G. Andoain.



Makila

Oraingoan

guk merezi dugu makilkada. Urriaren 17an argitaratu genuen alean, "Perretxikoak, altxor preziatua" izeneko erreportaiari, oso ona eta goxoa den perretxikoa toxikoa dela genion: Amanita Caesarea, gorringoa edo kuletoa bezala ezagutzen den perretxikoa toxikoa zela jartzen genuen. Barkatu gure hankasartzea eta oso toxikoa den perretxikoa argazkian ageri den hau da, Amanita Phalloides delakoa hain zuzen.

Akatsak eginez ikasten duen kazetari taldea



Amanita Caesarea
Gorringoa edo kuletoa
Jangarria

Amanita Phalloides
Hiltzaile gorria
Oso toxikoa




Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



ALTZARIAK

Eskaintza bereziak!!


KOZUELA 10 - 48100 ZAMORA

LANABES ZAHARREN MUSEOA

Larraulgo baserrietan garai batean lanerako erabiltzen zizuten tresnak ikusgai izango dira urtea amaitu aurretik udaletxe azpiko areto nagusian. Izan ere, lanabes eta gauza zaharrak erakusgai jartzeko museoak egingo dute larrauldarrek. Herritarrak beraiek ari dira museoak egiteko lanak egiten, herri lanetan jarduten duten bi udal langileekin batera. Berehala bukatuko dute baserri baserri lanabes eta tresna zaharrak biltzeko lana, eta behin gauza guztiak bildu ondoren, garbitu egingo dituzte. Lanabes garbituak txukuntxukun jarriko dituzte gero eta bakoitzak txartel bat izango du zein baserritakoa den eta zertarako erabiltzen zuten jakiteko. Lanabesez gain, argazki zaharrak eta gauza bitxiak ere jarriko dituzte museoan, beti ere zaharrak badira.

BI URTERAKO KONTRATUA

Lanabesak bi urtetan izango dira museoan. Behin epe hori amaituta, museo piezen jabeek erabaki egin beharko dute gauzak museoan utzi edo etxera eramanez aukera biren artean.



Helburua jende-ari herriaren historiaren berri ematea da, hau da, larrauldarrek garai batean lanerako, eta linean, eguneroko bizimoduan erabiltzen zizuten gauzen berri ematea.

Dantza eta aerobic-a egiteko ikastaroak

Hasi dira Larraulen dantza eta aerobic-a egiteko ikastaroak. Asteazkenero, arratsaldeko bostetatik zazpietara, dantza egiteko eta ludotekan jolasteko aukera izaten dute haurrek. Aerobic-a berriz, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan egiten dute, arratsaldeko zazpietatik zortzi etara. Udaletxe azpiko aretoan ari dira egiten bi ikastaroak.

Postalak salgai

Xabier Otero argazkilarik egindako zortzi argakien postalak salgai daude herriko bi ostaluetan. Larraulgo Udalen ekimenez eta Tolosa Tour elkartearen laguntzarekin egin dira aipaturiko postalak, eta herriko txokoak eta ogibideak irudikatzen dituzte. 100 pezeta balio du postal bakoitzak.

Liburutegia lekuz aldatuko dute

Lanabes zaharren museoak udaletxe azpiko areto nagusian egingo dutenez, liburutegia zena dantza nahiz aerobic-a egiteko erabiltzen dute orain. Ondorioz, liburutegia udaletxeko lehenengo soilaruan jartzeko lanak egiten ari dira.



ZAHARRAK BERRI

Anselmo Roteta

NEGURAKO PRESTAKETAK ETA KONTRABANDO KONTUAK

Negurako prestatzen nahikoa lan izaten genuen baserrian. Pelea piska bat izaten zen baserriarren artean, belarrak zeinek lehenago moztu, alferragoa zein zen eta horrelako kontuekin. Gazteak ginenean gari lanak egiten aritzen ginen jo eta su, gari asko egiten zen garai batean. Gari-hirina lortzeko maiz egiten genuen Alkizako errotarako bidea. Asto gainean gari eta arto zakuak jarri eta aurrera! Batzuetan gauez egiten behar izaten zen lan hau, gerra ostean, hots, diktaduran, debekatuta zegoen eta, jatea ere debekatuta zegoen! Garai hartan, hainbesteko bat agintariei eman behar zitzaizkien, herri bakoitzak hainbesteko bat eman behar zuen. Eta noski, herriko agintariek baserri bakoitzari ordaintzeko jartzen zien kopuruarekin inor ez zen gustora gelditzen, inor gutxi behintzat. Kontrabandoa zen orduan errotera joatea, hainbat errota itxita egoten zen, haina Alkizako alkatearen errota, pribilegiatua nonbait, irekita izaten zen. Hogei bat asto ikusita nago errenkan, zain. Izan ere, hirina eta horrekin egiten zen taloa ziren garaiko alimentua, gu taloz hazitakoak gara.

Lapurak Larraulen

Joan den hilaren amaieran lapurretak izan ziren herrian. Goizargi jatetxetik diru-kaxa lapurtu zuten. Elizara ere sartu ziren, lau sarrailak hautsiz, baina ez zuten balorezko ezer eramanez, diru piska bat besterik ez zuten eramanez. Hala ere, egin duten kaltea ez dela nolana hainkoa izan esan digute herritarrek. inoiz horrelakorik herrian ezagutu ez dutenek.

“Zer berri?” hila-
beteko ekintzak
azaltzeko orrixa

Andoaingo Udalak eta herriko talde ezberdinek antolatutako ekintzen berri ematea da “zer berri?” orriaxaren helburua. Zortzi orrialdeko foilettoa da eta hilero-hilero kaleratuko da maiatza bitartean. Hori guztia zuzentzen eta koordinatzen Maribi Olano ari da. Herriko taldeek Andoaingo Kultur Etxera deitu edota ekintzen berri ematen duen idatzia eramane beharko dute bertara orrixa honetan parte hartu nahi badute. Ekintza egingo den hilabetearen aurreko hilabetearen lehenengo 10 egunetan eman beharko da ekintzen berri Kultur Etxean.



ZAHARRAK
BERRI



Fernando Iturralde

KIROLA ETA APOSTUAK

Andoaingo herriak izen handiko kirolari asko izan ditu beti. Edozein kirola dela ere kirolzaletasun handia erakutsi dute herriarrek kirolarekiko. Andoainen ia igandero asto karrera edota korrika apostuak egiten ziren. San Rokera igo eta jaisteko apostuan Etxeberria eta Bentaberri lehiatu ziren. Etxeberria Bentaberri baino 10 minutu beranduago irten zen, eta Etxeberria harfapatu nahian irten arren, minutu bategatik Bentaberrik irabazi zuen apostua. Patxi Irizar korrikalariaren, “Garroren”, lasterketetara ere joan ziren andoaindarrak. Asteastuko autobusa alokatu eta Irizar animatzera joaten ziren. Zaratzen duela 40 urte inguru eginiko Gipuzkoako txapelketa egunean, korritu beharreko pista elurrez estalia zegoen. Gatzak elurra urtutzen zuela eta 100 kiloko gatzez betetako bi zaku eramane zituzten andoaindarrak. Inork ez ikusteko, gatza poltsikoan sartu, eta piskanaka piskanaka, gatza botatzen zuten korri egiteko pistako elurra urtutzeko.

AIURRI ALDIZKARIA EZAGUTZEN

Beterri-Aiztondoko ikastetxeko baur eta gazte ugari Aiurri aldizkaria ezagutzeko asmoz Andoainen dagoen egoitzara etorri dira bisitan. Asteastuko eta Andoaingo ikasleak izan dira lehenak, eta aldizkaria pausuz pausu nola egiten den eta langileak ezagutzeko aukera izan dute. Andoaingo ikasleak Leitxaran ikastetxeko 3. DBH-ko ikasleak izan dira, prentsa tailerreko hamaika ikasle, bain zuzen ere.

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

ILLUMBE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN



ILLUMBE, S.L.

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN

**Carlos Almorzar-
ren aurkako
epaiketa**

Carlos Almorzarekin batera beste hamairu pertsona epaituko dituzte Parisen. Izan ere, ETaren iraultza zerga kobratu izana leporatzen diete Almorza eta Dorronsoro euskal presoek. Almorzaren agiriak medio eta poliziaren arabera, Almorza eta Dorronsororen idatzi eta dokumentuetan Frantziako magistratu baten aurkako atentatu posible bat ere ageri da. Era berean, Laurence Levert epaileak aipaturiko dokumento horietan agerzen ziren 45 pertsona atxilotu ditu, baina, egun, horietako bat bakarrik dago gartzelan. Almorzaren epaiketaren erabakia azaroaren 12an ezagutuko da.

**Karlos Garcia
andoaindarra
gartzelan**

Urriaren 21ean Carlos Garcia Preciado andoaindarra atxilotu zuen Ertzaintzak. Karlosi "Y talde" bateko kide izatea eta zenbait sabotai ekintzetan parte hartzea leporatzen diote. Karlosen lantokia arakatu eta bere lankide bati galderak egin zizkioten egun berean. Atxilotu eta Ertzaintzaren egoitzara eramane zuten, ostean, Madrilgo Entzutegi Nazionalaren esku utziz. Bertan deklarazioa hartu ondoren gartzelan sartu zuten.

**Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren
aldeko ekimenak**

Andoaingo Herri Batasunak egun hauetan Mahai Nazionaleko kideek Madril-en duten epaiketarekin desadostasuna azaldu eta beren alderdi kideei elkartzuna adierazteko asmoz, hamaika ekintza antolatu dute herrian. Manifestazioak eta konzentrazioak egin; Alternatiba Demokratikoarekin ados daudela adierazten duten 152 herritarren autoinkulpazioak bake epaileari eman dizkiote; eta herrian informazioa zabal-tzen jardun dute ere azken egunetan.



**ALGODONERAKO BABES
OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK**

Algodonera izenarekin ezagutzen den alderdian 40 etxebizitza, garaje eta lokal komertzialak egiteko lanak hasi dira. "Fomento de Construcciones y Contratas" enpresak egingo ditu lan horiek, eta horretarako, 18 hilabeteko epea izango du, nahiz eta enpresak lanak 13-14 hilabetetan bukatzeko asmoa duen. Lan horiek 313 milioietako kostua izango dute. Herritarrengan interes handia piztu dute etxebizitza horiek eta etxebizitza horien eskakizuna Udaletxean aurkeztu behar da azaroaren 20a bitartean. Lanegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. Eskaria eskaintza baino handiagoa izango denez, eguberriak baino lehen egingo den zozketan jakingo da nori egokitu zaion etxebizitza horietako bat.



Lanak egiten hasi dira.

Gema
Lorategia
LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK
Kale nagusia. 30 969 28 98 - Billabona

LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.
Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57
OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

KIROLDEGIA HANDITZEKO LANAK HASI DIRA

Asfaltatze lanak hasi dira

Udalaren eta «Asfaltos de Campezo» enpresaren arteko akordioa dela-eta, herriko kale eta auzo ezberdinetako asfalto berritzeko lanak hasi dira. Guztira 25.000 m² asfaltatuko dira. Karrika auzoa, Larramendi atzekaldea, Joakin Larreta, Bazkardo plaza, Kaleberriko atzekaldea, Plazaola, Bazkardoko dorrea eta Ondarreta kaleak asfaltatuko dira, besteak beste. Lan horiek 25 milioitik gorako kostua duten arren, zerbitzu batzordeko lehendakaria den Maxen Zinkunegik adierazi digu 96-97-98 urteei dagozkien 9.000m² asfaltatuko direla eta, beraz, Udalak 14 milioi pezeta bakarrik ordaindu beharko duela lan horientatik: "Herria txukundu eta berritzeko lanak gutxiago balioko du".

Kirolo instalazioen proiektu orokorraren lehen fasea kiroldegia egitea zen, eta orain, bigarren fasean futbol zelaia egiteko lanak hasi dira. Hasi-rako proiektua zertxobait aldatu ondoren, futbol zelaia, aldagelak, muskulazio-gimnasioa eta atletismoko pista egingo dira. Horrezaz gain, aurrerago beste kirol pista egitea pentsatu dute.

ZEHAZTASUNAK

Futbol zelaiak belar artifiziala izango du eta kiroldegia eta ikastola bitarteko lurretan egingo da. Bere neurria 100x60 metrotakoa izango da. Alde batean harmailak eta 100 metrotako kirol pista lineal bat egingo dute. Futbol zelaia ureztatu eta ura aprobetxatzeko 70 m³-ko ur depositoa eraikiko dute.

Hamaika eta zazpi lagunetako futbol partiduak jokatu ahal izango direnez, lau aldagela egingo dituzte guztira. Arbitroek bere aldagelak izango dituzte. Aldagelak kiroldegi atzean kokatuko dira, egun almazena dagoen lekuan. Bertara sartzeko sarrera kiroldegitik egin beharko da eta futbol zelairako sarrera berriz, kiroldegitik independentea izango da. Muskulazio gimnasioak 238 m² neurtuko du eta egungo gimnasioari itsatsiko zaio. Kristalezko paretak izango du, futbol zelaira begira. Lanak bukatu bitartean, orain arteko muskulazio aretoa itxita egingo da.



CAFÉ TEATRO KARTEL LEHIAKETARAKO DEIALDIA

Lehiaketan edonork har dezake parte, baina partehartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Kartelaren altuera 42 cm. eta zabalera 70 cm. takoa izango da.
- "Café-Teatro": Gipuzkoan X. Jaialdia 97. Abenduak 11, 12, 13, 14 Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Tolosako Udalak" testua ondo nabarmendu beharko da.
- Lanak koloretan egin behar dira.
- Lanak Udal antolatzaileetako Kultura Departamentuan aurkeztuko dira azaroak 14a baino lehen. Lanarekin batera, kartazal itxi baten barnean autorearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira, kanpoan eta kartelaren atzekaldean berriz, lanaren izena.
- Epaimahaiaren erabakia prentsaren bidez emango da jakitera.
- Sari bakarra izango da, 40.000 pezeta, eta saritutako kartela Batzorde Antolatzailearen jabetzakoa izango da. Saririk jasotzen ez duten autoreek beren lanak abenduaren 15etik 29ra bitartean jaso beharko dituzte.

ARANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
Fax: ☎ 59 24 03
ANDOAIN

winterthur

VAC
VAC

HOL-ATZ

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

**APAIZ-ETXEA
KONPONTZEN**

Apaiz-etxea erortzen ari zela esan digu Joxe Maria Albizu apaizak. Etxearen lau pareta nagusien goi aldeak oso kaltetuta zeuden, eta hezetasuna nagusitzen ari zen etxean. Ondorioz, etxearen paretak konpondu eta txukundu egin behar zirela pentsatu zuten goitik behera erori aurretik. Bere borondatez laguntzera etortzen direnez gain, langileak ari dira jo eta su paretak konpontzen eta etxea zutik iraunarazteko lanak egiten. Eta horrek, noski, dirua balio du. Horregatik erabaki dute herriko familia bakoitzari kuota bat eskatzea: urtean 5.000, 10.000, 15.000 edota nahi adina pezeta ordaintzeko eskaera egin du elizak herrian. Kopuru horiek ordaindu ezin dituztenek gutxiago ematen baldin badute ere ongi hartuak izango direla adierazi digu apaizak. Lan hauek ordaintzeko dirua Santu Gutzien egunerako bildu nahi dute, nahiz eta ziurrenik geroago ere oraindik dirua biltzen jarraitu.

Bien bitartean, apaiz-etxea barruik txukuntzen ariuko dira. Oraingoz, beste gela bat eta komuna jarri dituzte txukun-txukun. Beraz, hemendik aurrera sendotzako bi taldeek gela bana izango dute.



**Azaroaren amaierarako
bukatu nahi
dituzte lanak.**

**URRIAK 20AN AIURRIN IZAN GINEN ASTEASU-
KO PELLO ERROTAKO IKASLEAK.**

34 IKASLE ETA 4 IRAKASLE AUTOBUSEZ ETORRI

**GINEN ETA
ANDOAINEN PASA
GENUEN
GOIZA. ORDENADORE
ASKO IKUSI
GENITUEN
ETA ASKO
IKASI GENUEN.**



— FERRETERIA
GOROSTIDI
— BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

M Talleres
Mendi S. L.

Burdinezko piezen egintza,
planuen araberakoa.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.

Urnietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

AIURRI

EGIN ZAITEZ HARPIDE

☎ : 300732
FAXA: 300731
DR. HUIZI, 15 1. ESK.

Arropa bilketa


Billabonako parrokoiko gazteek arropa bilketari ekin diote berriro ere. Parkeko eskoletan bilduko dute arropa hileko lehen eta hirugarren astearte iluntzetan; 17:30etatik 19:30ak bitartean hain zuzen. Hileko lehen eta hirugarren larunbatak berriz, arropa jasotzeko egunak izango dira, beti ere arratsaldeko 16etatik 18etara agertuz gero.

Jaime Altuna intsumisoa epaitu egin dute

Jaime Altuna 23 urteko gazte billabonatarra epaitu egin zuten hilaren 16an intsumiso izateagatik. Hamar bat minutu iraun zuen epailetan, fiskalak 6 urtetako gartzela zigorra eta 10 urtetako inhabilitazioa eskatu zuten; intsumisoaren abokatuak berriz, absoluzioa. Sententzia egun gutxi barru emango du epaileak. Billabonako Udalak bere elkartasuna adierazi dio gazteari eta

Parkeko eskolak eraberrituta

Parkeko eskolak izenarekin ezagutzen diren lokalak zeregin berrietarako dira orain. AFKako euskaltegian nahiz gozogintza ikastaroan klaseak ematen denbora daramate bertan, haina arropa bilketan aritzen direnak, adibidez, duela gutxi joan dira lokal hauetara. Gauza bera egin dute alkoholiko anonimo taldeko kideek. Hauxez gain, judoa praktikatzeko edota Eresargi abesbatzan abesteko aukera dute bertaraten direnek.



BERRIAK ZIRI



Ainhoa Arozena

BILLABONA ETA KULTUR EKINTZAK

Udazkenaren atarian hasita, udal kultura batzordeak antolatutarik, zenbait kultur ekintza izan ditugu Billabonako Curca zinearetoan. Irail eta urrian gauzatu dira aipatu ikuskizun hauek.

Hasteko, urriaren 19an Kukubiltxo taldeak "Behin bazen" -batez ere haur eta gaztetxoeri zuzenduriko antzezlan- antzeztu zuen, Euskal Herriko zenbait ipuin azaldu zituzten panpinen bidez eta musikaren laguntzaz. Zinearetoa ez zen guztiz bete, jende gutxi gogatu zuen antzeztanarekin.

Aste beteren buruan, urriaren 26an, Urbil eta Txomin Artolaren kantaldia izan genuen leku berean. Aretoa berehala bete zen eta esan behar kontzertu bikaina eskaini zigutela, azken diskako kantutak aurkeztu zituzten eta kantu zaharrak entzuteaz gain abesteko aukera ere izan genuen oso giro jatorrean.

Urriaren 2arekin zetorkigun herria hain harrera ona izan zuen Ttanttaka taldearen "El florido pensil" antzezlan. Konturatzerako zinearetoko bi solairuak gainezka zeuden eta antzerkiak iraun zituen ia bi orduak motz geratu ziren hutsleontzat. Bat baino gehiago etxeratuko zen sabeleko minak jota, eragindako barre-algaren ondorioz.

Hamabost egun geroago, urriaren 17an, beste antzeztan bat izan genuen gure artean, Zanguango taldearen "¿Y quién no?" hain zuzen. Jende ugari barre galantak egin zituzten oraingoan ere.

Azkenik, eta kultur ekintza hauekin bukatzeko, urriaren 24an Hiru-Truku-ren kontzertu bikainaz gozatzeko parada izan genuen.

Hau guztiaren ondorio moduan, esan daiteke kultur ekintza hauek oso harrera ona izan dutela herritarrengan; hala ere badirudi izen handiko taldeak ekarri behar dituztela jendea gertura dadin, zinearetoa hutsik ikusten ere ohituta baikaude.

LERTXUNDI HARATEGIA



Alkorta-enea etxea - ☎ 69 18 76
Zizurkil

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22

Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

KIROLDEGIA ITXURA HARTZEN

DATORREN URTEKO MAIATZERAKO AMAITU NAHI DUTE

Kiroldetiko 3. eta azken faseko lanak egiten edota hobeki esanda, bukatzen ari dira Murias enpresako langileak. Kiroldetiko fatxada bukatu dute, hau da, kanpokaldea eginda dago. Orain, teilatua baino ez dute jarri behar kiroldegiaren kanpokaldea erabat bukatutzat emateko. Azaroaren erdialdera hasiko dira teilatua egiten. Bestalde, barruan ere egin dituzte egin beharreko lanik gaitzenak. Hala nola, bi igerilekuak jartzeko zuloak egin dituzte; saski baloia, futbola eta antzeko kirol gehiago egiteko aretoa itxuratu dute; bi gimnasio eta aldageletako paretak ere altxa dituzte; eta azkenik, sauna eta taberna non egingo dituzten kokatu dute, hots, non egingo dituzten erabaki eta lehenengo lanak burutu dituzte.



kiroldegiko zerbitzu bakoitza egitez amaitzea eta nola ez, hornitzea falta da. Horretarako maiatz arteko epea dute eta datorren urteko aurrekontuaren zati bat lan horiek ordaintzeko erabiliko du Udalak. Behin hori guztia eginda

irekiko dituzte kiroldegiko ateak.

ZENBAIT KONTU ERABAKITZEKE

Lan horiek egiten ari diren bitartean zenbait kontu erabaki beharko ditu Billabonako Udalak. Esate baterako, kiroldegia nork kudeatuko duen erabakitzeke dago. Udalak berak edo enpresa pribatu batek kudeatuko duen erabaki behar dute. Bestalde, nahiz eta garbi eduki kiroldegia eskualdeko zerbitzua izango dela, ez dituzte erabaki Aiztondoko gainerako udalek kiroldegian izango dituzten ardurak eta betebeharrak.

HORNITZEA FALTA DA

Beraz, lanik gogorrenak egin dituzte dagoeneko. Orain,

Zabala
Ordukari Bitxitegia

RACER
TISSOT

LOTUS
SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

GOROSTI
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

BRONTE
OPTIKA

JUBILATU ETA PENSIONISTENTZAT
ESKAINZA:
ARMAZOIA KRISTALEKIN: 7. 900 PTA.

Kaleberria, 36 - ☎ 692525 Billabona
LAISTER TOLOSAN DENDA BERRIA!
Nafarroa Etorbidea, 20 - ☎ 651486

BRONTE
ORTOPEDIA


NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,
PROTESIAK ETA PLANTILAK
TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

Kaleberria, 36 - ☎ 692525 Billabona
LAISTER TOLOSAN DENDA BERRIA!
Nafarroa Etorbidea, 20 - ☎ 651486

BABES OFIZIALEKO 36 ETXEBIZITZA BERRI

Hogeita hamasei etxebizitza egiteko enpresa aukeratu eta berehala, etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko izena emateko epea zabalduko dute udaletxean. Izan ere, behin lanak egiteko enpresa aukeratuta, hasi nahi dute etxebizitzaren eskaerak jasotzen. 36 etxebizitzetatik 6 bi logelako apartamenduak izango dira. Etxebizitza horietatik 4, apartamenduak laurak, Bulandegi bidean egingo dituzte. Gainerakoak berriz, Pedro Maria Otaño ikastetxearen atzean egingo dira.



Pagamuñon egiten ari diren beste etxebizitzak.

SALNEURRIAK

Etxebizitza handienek 13 milioi pezeta inguru balioko dute. Laurogeita zortzi metro karratuko, gutxi gora-behera, etxebizitzak izango dira, eta oraindik erabakitzeko dute etxe horien jabeek etxeko garajea erosi beharko duten ala ez. Apartamenduek 7 milioitik gora balioko dute, eta noski, txikiagoak izango dira: 60 m² ingurukoak.

DATORREN URTERAKO BUKATUTA

Etxebizitzak datorren urtearen amaierarako bukatu nahi dituzte. Bertara bizi-tzera joango direnen zerrenda berriz, urte honen amaierarako egingo dute.

ONGIZATE SAILA

Udalak beste bi etxebizitza berri egingo ditu beharrenda daudenei uzteko. Pedro Maria Otaño etxebizitzaren ondoan egingo ditu eta berarekin batera Ongizateko bulegoak eta eguneko egoitza bertan ezarriko dira.



Adunan Eskola Txikiek egin zuten jaialdia.

II. OLINPIADA TXIKIAK, IZUGARRIAK

Gipuzkoako eskola txikiak irakasle eta ikasleek aparteko jaiak egin zuten hilaren 29an Zizurkilgoian. II. Olinpiada Txikiak egin zituzten, eta nahikoa jolas eta kirol egiteaz gain, lagun berriak egiteko aukera ere izan zuten. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurrek bi taldetan banatuta hartu zuten parte Olinpiadan, eta talde bakoitzak joku desberdinak egin zituen. Zein joku egin eta nondik nora joan azaltzeko sorgin bat izan zuten lagun. Sariak ere jaso zituzten, eta aipagarria izan zen talderik animosoenak jaso zuen saria; giroa jartzeagatik jaso zuen saria hain zuzen.

ESKOLA TXIKIEN EGUNERAKO PRESTATZEN

Gipuzkoako eskola guztiak bildu zituen ospakizunetan 700 ikasle eta 100 irakasle elkartu ziren. Eta noski, hori guztia prestatzeko gogoz egin zuten lan eskolek, eskola txikiak koordinadorak, Zizurkilgo Udalak eta hori guztia koordinatzen ibili den Jasone Etxeberriak. Olinpiadak Zizurkilgo egiteko arrazoia ikasturte amaieran eskola txikien eguna bertan egingo dela da. Beraz, herria girotzeko eta entsaio moduan ongi etorri zaie zizurkildarrei II. Olinpiada Txikia herrian egitea.

Goiko
OPTIKA
Eguzkitako betaurrekotan
aukera zabala
Arteta z/g - 20140 ANDOAIN
☎ 590955

S T O P
LIBURUDENDA
TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesez, frantsesez,
italieraz...)
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

minikost
LIBURUDENDA
PAPERDENDA
Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

DESINTENTSIFIKAZIOAREN INGURUKO EUROPA MAILAKO MINTEGIA



**Gero eta espazio gutxiagoan
ekoizpen gehiago lortzeko joera dator.**

EHNE SINDIKATUAK CEP (CONFEDERATION PAYSANE EUROPEEN) DELAKOAREKIN BATERA, 200 LAGUNETIK GORA BILDU ZITUEN MINTEGIA ANTOLATU ZUEN IRAILAREN AMAIERAN NAFARROAN. EUROPA MAILAKO MINTEGIA IZAN ZEN, ETA ALEMANIA, PORTUGAL, BELGIKA ETA BESTE HERRIALDE BATZUETAKO SINDIKATUEK HARTU ZUTEN PARTE BERTAN. HONA HEMEN BERTAN PARTE HARTU ZUEN XABIER GOIKOETXEA BILLABONATAR NEKAZARI ETA SINDIKALISTAK MINTEGIARI BURUZ ADIERAZI DIGUNA.

Desintentsifikazioa hitz potoloa da guztientzat, baina garrantzitsua oso Europa mailako sindikatu guztien iritziz. Izan ere, aspalditik kritikatu dute sindikatu guztiek, salbuespenik gabe, Europako Nekazaritza politika honek bultzatzen duen bideari jarraitzea. Eta hori izan da mintegi honetako helburu nagusia; Nekazaritza Politika eta intentsifikazioaren arteko erlazioa neurtu, aztertu eta Nekazaritza Politika Iraunkorrago baten aldeko irizpide nagusiak jorratzea.

Egun horietan entzun ziren adierazpenen arabera, lanpostuak galtzea eta baserriak desagertzea dependentzia ekonomikoa handituz, lurarekin zerikusirik ez duen nekazaritzaren gorakada, eta nekazarien errenta behera-kada ikaragarria herrialde guztietan gertatzen diren kontuak dira.

Baina hori latza bada ere, intentsifikazioaren ondorioz eta azaldu ziren esperientzien arabera, nekazariak zahartzen ari direla eta berriak sartzen

ez dela ikusten ari da hainbat baserri gunetan. «Nekazaritza inguruak basemortu bihurtzen, oraindik "garbi" mantentzen ziren lur azpiko uraren kontaminazioa areagotzen; biodibertsitatea galtzen; botika eta pozoiaren erabilera areagotzen, eta abar luze bat ari da gertatzen», adierazi digu Xabier Goikoetxeak.

Gaur egun, merkatu libreak, herrialdeen eta industrien interesek eta datu makroekonomikoen agintzen dutela gaineratu du. «Elikadura mailan nagusi izateak eta menpekotasuna sortzeak gaurko arma nagusienak dira, eta bestela, ikusi CATTeko negozioetan (mundu mailako merkatuen arteko negozio mahaia) nola nekazaritza saila den akordio batetara iristeko gairik korapiltsuena.»

Flori gutxi balitz, hainbat lekuetako talde ekologistek nekazaritza eta ingurugiro kontzeptuak banatu dituztela esan digu EHNE-ko ordezkariak, «oker itzela eginez». Bestalde, askotan, gazteen artean behintzat, ahaztu

egiten da gure gurasoak bertako baserrietan ekoiztutakoari esker bizi ahal izan direla, nahiz eta orain guztia supermerkatuan bertan sortzen dela dirudien.

“BASERRIAK DESAGERTZEN ARI DIREN HEINEAN, ELIKADURA MENPEKOTASUNA AREAGOTZEN ARI DA”

«Desagertzen den baserri bakoitzeko estruktura produktibo bat galtzen dugu eta herriaren elikadura menpekotasuna areagotzen dugu», gaineratzen du Xabierrek, eta «sindikatuak ingurugiroarekiko orekatua den nekazaritza bultzatu nahi dugu, nekazariari bizi kalitate ona eta errenta duinak lortzeko aukera emango diguna eta kontsumitzaileei berriz, kalitatezko produktuak eskuratzeko eta inguruaz disfrutatzeke aukera emango diena. Hau da gure erronka nagusia eta hau lortzeko borrokatu nahi dugu nahiz eta korrontearen aurka jotzen ari garela jakin», esanaz amaitzen du

ORDU TXIKIETAN ETXERA

Tabernak ixteko ordutegi berria jarri dute indarrean Andoainen

BIZILAGUNEK LO EGITEKO ARAZORIK EZ EDUKITZEKO, HAU DA, KALEAN ISKANBILA GUTXIAGO SORTZEKO XEDEAREKIN TABERNAK IXTEKO ORDUTEGI BERRIA INDARREAN JARRI DA. HORI DA BEHINTZAT ANDOAINGO UDALAK DEKRETUA INDARREAN JARTZEKO DUEN ARRAZOA. EUSKO JAURLARITZAK IRAILEAN ONARTUTAKO DEKRETU HORREK, ORDEA, SORTU DU BESTELAKO ISKAN-

BILARIK TABERNARI ETA "GAUTXORIEN" ARTEAN. TABERNARIAK EZ DAUDE GUSTURRA ORDUTEGI BERRIAREKIN, ORAIN BAINO ORDUBETE LEHENAGO ITXI BEHAR BAITUTE TABERNA, ETA HORREK BEREN NEGOZIOAN ERAGIN ZUZENA IZANGO DUELA DIOTE. GAUEAN TABERNAZ TABERNA IBILTZEN DIREN HERRITARREK ERE EZ DUTE ETXERA KALERA IRTEN ORDURAKO JOAN NAHI.



Gaueko ordubetetan honela...

Eusko Jaurlaritzak erabakitako ordutegi berriak tabernari guztiei eragiten die; bakoitzari berak duen taberna motaren araberrako ordutegia ezarri diote. Guztiek orain baino ordubete lehenago itxi beharko dute beren establezimendua astean zehar nahiz asteburuetan; asteburuetan eta jai bezperatan noski, astean zehar baino ordubete beranduago itxiko dute. Jai berezietan, hots, Gabonetan, Aste Santuetan, Ihauterietan nahiz herriko jaietan ixteko ordutegia berezia izango da: bi ordu beranduago itxi ditzakete establezimenduak. Baita interes turistikoko es-

ORDUTEGI BERRIA	NEGUAN	UDARAN
1. Mailakoak (txokolateriak...)		
Astegunetan	6:00-22:30	6:00-23:00
Asteburuetan	6:00-23:30	6:00-24:00
2. Mailakoak (tabernak, sagardotegiak...)		
Astegunetan	6:00-00:30	6:00-01:00
Asteburuetan	6:00-01:30	6:00-02:00
3. Mailakoak (pub-ak...)		
Astegunetan	8:00-02:00	8:30-02:30
Asteburuetan	9:00-03:00	9:30-03:30
4. Mailakoak (diskotekak, kafe-teatroak...)		
Astegunetan ixteko ordua	4:00	4:30
Asteburuetan ixteko ordua	5:00	5:30

kaintza interesgarriren bat dagoenean ere, baina hori Udalak horrela erabakitzen duenean soilik egin ahal izango da. Udako eta neguko ordutegia ere desberdina da, udaran neguan baino ordu erdi beranduago itxiko da taberna. Udako ordutegiak ekainaren lehenetik irailaren 30era arte iraungo du.

BIZILAGUNEN LO EGITEKO ESKUBIDEA

Cure bailarako herrietan Andoainen bakarrik jarri dute, oraingoz, ordutegi berria indarrean. Tabernari guztiei eskutitz bana bidali diete dekretuaren berri emateko.

eta beren taberna noiz itxi behar duten ere adierazten diete. Izan ere, eta ordutegia betetzen ez badute, 200.000 pezeta arteko isunak jarriko ditu Udalak. Behin eta berriaz ordutegia beteko ez balitz, eta dekretuaren arabera, taberna 5 milioitako isuna ordaintzera zigortuko lukete, beste



...eta ordubata t'erdietan berri, horrela.

zenbait neurri hartzeaz gain. Andoaingo Udalak, Zerbitzu Batzordeko Maxen Zingunegiren hitzetan, herrian izan diren kexak eta iskanbilak konpontzen ahalegintzeko bide egokia dela uste du tabernak ixteko ordutegi berria hau. Gainera, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretua denez, udalak erabaki hori betearaztera behartuta daude. Andoainen aspalditik ari dira bizilagunak kexuka, Goikoplaza ingurukoak gehienbat. Izan ere, badira urte batzuk asteburuetan inguru horretan jende asko ibiltzen dela. Gazte giroko taberna berri ugari dago, eta beraz, erruz biltzen da jende gaztea bertan. Horrek guztiak kalean jende asko biltzea, eta ondorioz, zarata ugari sortzea ekarri du. Bertako bizilagunek, ordea, ez dute festarako kalekoek duten gogoaren laurdenik ere. Lo egiteko eskubidea dutela diote, asteburuak delako ez daudela zertan kalekoekin batera "parrandan" egotera behar-

tuta, gaineratzen dute. Udalekoen iritziz ordutegi berriak, gainera, egun gertatzen diren iskanbila eta gatazka ugari konpontzen lagunduko du.

Tabernariak ordutegi berrira moldatu beharko dutela uste du Udalak, eta finean, egungo ohi-turak aldatzea da konponbidea; hau da, berandura arte kalean parranda egiten gelditzeko ohi-tura aldatu edota bestela orain baino lehenago kalera irteera ohi-tu.

TABERNARIEK LAN EGITEKO GEROZ ETA ORDU ETA AUKERA GUTXIAGO

Tabernen ordutegi berria Andoainen bakarrik jarri dutenez martxan, Andoaingo tabernariei eskatu diegu iritzia. Bekoplaza inguruko

tabernek adierazi digutenez, beraiei ez diete aldaketa handiegirik eragiten ordutegiak: "Asko jaitsi da hementxo giroa. Asteburuetan ordubata, ordubiak inguruan ixten dugu taberna, jendea joaten

"ORDUTEGI BERRIAK EGUNGO ISKANBILAK ETA ZARATA ARAZOAK KONPONTZEN LAGUNDUKO DU"

denean". Beraz, taberna hauentzat ordutegi berria ez da oso aldaketa handia. Hala ere, dekretua gehiegizkoa dela iruditzen zaie: "Jendeak parranda egiten jarraituko du, kalean. Zaratak eta iskanbilak ez dira asko gutxituko, jendea ez da etxera joango tabernak lehenago itxi arren".

Goikoplaza inguruan egotera bestelakoa da. Jende asko elkartzen da bertan astebu-

ruero, herrikoa nahiz kanpokoak. "Jendeak berandu irteteko ohi-tura du, gauerdira aldera edo, eta beraz, ordutegi berri honekin lan egiteko ordu gutxiago ditugu", adierazi digute Goikoplaza inguruko tabernariak. Asteguntan gainera, nahikoa lan gutxi izaten du-

te, "asteburuak dira lan egin eta irabaziak egiteko dugun aukera". Diotenez, ordutegi berria gehiegizkoa da, ez zaie bidezkoa iruditzen goizaldera arte tabernak irekita edukitzea, baina erdibideko neurri edo ordutegi bat adostu zitekeela uste dute. Gainera, jendeak gaupasak egiten jarraituko duelakoan daude, goizean irekiko dituzten tabernen-

zain geldituko dira kalean, eta horrek, ez du kaleko zarata gutxituko, "bestela, kotxea hartu eta beste norabaitera joango dira, herritik alde egingo dute". Bukatzeko, tabernak irekitzeko eta mantentzeko bete behar dituzten baldintzak eta lan egiteko duten ordutegi murrizta ikusirik, "ordubete gutxiago lan egiteak asko suposatuko baitigu", tabernan lan egitea geroz eta zailagoa dela azpimarratu digute.

"JENDEA EZ DA ETXERA LEHENAGO JOANGO TABERNAK ITXI ARREN"



EDUARDO ARRESEYGOR MONREAL

«Arte heziketa on bat falta da»



Eduardo bere ikasle gazteekin.

Nolatan etorri zinen Euskal Herrira?

Argentinan, Hegoamerika-ko herri askotan bezala, artea liburutetan bakarrik ikusi ahal da. Beraz, artea ikusteko asmotan irten nintzen bertatik eta hemen geratu nintzen. Nire emaztea izango zena ezagutu, lekua gustatu eta Euskal Herrian geratu nintzen. Nahiz eta nire arbasoak euskaldunak izan, bestelako arrazoiak bultzatuta geratu nintzen hemen.

Zein dira Europako eta Hegoamerikako artearen arteko ezberdintasunak?

Europan, lan eginez gero, beste herri edota zentru artistikotara joatea errezagoa da. Europar artearen kultur tradizioa handiagoa dago

eta baita artearen merkatura sartzeko aukera gehiago.

Zer da artea ulertzea?

Nire ustez artelan bat bistaz bereizteak eta identifikatzek ez du artea ulertzen denik esan nahi. Beste ezaugarri asko kontutan hartu behar dira: koloreak, formak, sinbologia, konposizioa... Arte modernoak arau asko hautsi ditu. Hala ere, artea ez ulertzearen arrazoi nagusienetakoa artearen hezkuntzarik jaso ez izana da. Bestetik, artea ere ez da "masaz" arduratu, eta beraz, herritar askok ez dute artearengan inongo interesik. Artearen merkatuari ere saltzea interesgarriagoa iruditzen zaionez, arrakasta maila bateko artea baino ez

du indartu, benetako artea, modu ezberdinak landu eta arriskatzen duena, mundu horretatik kanpo geratuz.

Nola definitzen duzu zure lanbidea?

Artista plastikotzat jotzen dut nire burua. Arlo ezberdinak landu arren, pintatzea eta grabatuak egitea gustatzen zait gehien. Eskultura oso noizbehinka egiten dut. Artea egiteko erabiltzen den materialen ikerketa bat burutzen ari naiz, izan ere, erabiltzen den gauzak ideia bat berak espresatzeko balioko du. Adicrazi nahi dudaren arabera aukeratzen

du material bat edo bestea.

Tailer kreatiboan lanean jarraitzen duzu...

Bai. Hemeretzi urte badira lan horretan hasi nintzela eta oso gustora nabil. Bost urteko haurrekin hasi eta unibertsitatera hasi bitartean nirekin dabiltzan haur eta gazteci artearen mundua ezagutarazten dihardut. Arte plastiko ezberdinak landu eta heziketa artistiko bat erakustean datza nire lanak. Gazteak egiten duen hori gustokoa, interesgarria eta ulergarria izateaz gain, berak aukeratutako zerbait izatea nahi dut.

ARGENTINAKO LA PLATAKO UNIBERTSITATEAN ARTE EDERRETAN LIZENTZIATUA; EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN HAUREN ESPRESIO PLASTIKOA ETA ARTISTIKOARI BURUZ EGITAN LANAREKIN DOKTORATUA; ARTEA ERAKUSTEN DIHARDU AZKEN 19 URTEAN. BERE TAILERREAN HAUR ETA GAZTEEI ARTEA EZAGUTZEN ERAKUSTEAZ GAIN, DENBORA DUENEAN, INFORMATIKAREN MUNDUA, ARTEA EGITEKO MATERIALAK ETA SIKOLOGIAK DUEN GARANTZIA EZAGUTZEN AHALEGINTZEN DA.

salgai

TOÑYK FILOLOGIA INGELESA IKASI DUEN ARREN ARTEA OSO GUSTOKOA DU ETA HORREN ADIBIDEA INGURUKO LEHEN ARTE GALERIA-REN ARDURADUNA IZATEA DA. BIDAIA-TU ETA BESTE KULTURAK EZAGUTZEA DITU AFIZIO, ORAIN, LEKU EZBERDINETAKO ARTE LANAK ETA KULTURAK EZAGUTARAZTERA EMATEKO AUKERA DU. ANDOAINDARRA IZAN ARREN, INOIZ EZ ZUEN PENTSATU ANDOAINEN GERATUKO ZENIK, ORAIN, ORDEA, GUSTORA DAGO BERE GALERIA BERRIAREKIN.

Artearekin zerikusia duen ikasketarik egin al duzu?

Artea betidanik gustatu zait. Mundu horretan afizionatua baino ez izan arren, artea ikusi eta artearen inguruko liburuak eta aldizkariak irakurtzea gustatzen zaidanez. beti ikasten eta gauza berriak deskubritzen ari naiz. Pinturak ulertzeko eta interpretatzeko oinarritzko irizpideak ezagutzen ari naiz orain.

Nolatan bururatu zaizu arte galeria bat irekitzea?

Galeria dagoen lekuan denda bat zegoen lehen. Denda

TOÑY LANDA AYERBE

Ayerbe arte galeriako arduraduna:

“Inguruko arte galeria bakarra da”



istera zihoazela jakin bezain pronto, galeria irekitzeko leku aproposa zelakoan horretara animatu nintzen. Galeria ireki ahal izateko bi urte aritu behar izan dut lanean. Donostian galeria asko dago eta herrian galeria bat irekitzea zaila den arren, oso gustora nago hartu dudana erabakiarekin. Inguruko herrietan irekitzen den lehen arte galeria da eta artearen erakusketa eta salmenta tokia izango da.

Herriarrek ba al dute artea ikusteko edota aztertzeko obiturarik?

Ez gehiegi. Hiru aste baino ez dira galeria ireki nuela eta hasieran behintzat, lotsa edota obitura faltagatik ez dira barrura sartzera gehiegi ausartzen. Hala ere, bada pinturak ikustera etorri de-

nik. Batzuek sartzeko ordaindu behar ote den galdetzen didate, beste batzuek berriz lokala zer den eta horrelakoak. Andoaindariak, artean adituak direnak nahiz ez direnak, artearen mundura hurbiltzea da nire helburua. Artearen hezibide bat izan dezaten lan egingo dut eta horretarako Eduardo Arreseygorren laguntza izango dut.

Sarrera doan bada, zein diru-sarrera dituzu?

Pintore edo artistarekin kontaktuan jarri eta bere lanak galerian jartzen ditut. Denboraldi batean erakusketan pintore horren lanak ikusgai egoteaz gain, salmentan daude eta saltzen den lan bakoitzeko nik komisio bat ateratzen dut. Komisio horrekin galeriako kostuak or-

daindu eta gelditzen dena niretzat izaten da.

Zein pintoreren lanak dituzu erakusgai momentu honetan?

Joxean Bilbaoren olio-pinturako lanekin ireki dut galeria. Koadro klasikoko kopiak, pintura pertsonalagoak eta abstraktoak daude salgai, 25 guztira. Denborarekin hala zeramika eta portzelanezko panpinak, antiguedadeak, artesania, nola herriko artisten lanak salgai jartzea da nire asmoa. Edonori arte mota ezberdina ikusi eta gozatzeko aukera ematea da galeriaren helburua. Lanegunetan goizeko 10:30etatik 13:00etara (astelehenean izan ezik) eta arratsaldez 16:30etatik 20:00etara irekiko dut galeria; igandetan berriz, 11:00-etatik 13:00-etara.

ARKAITZ MORABIDE DÍEZ IGERILARIA

Igeriketako Euskal Elkartek beka eman dio 97-98 denboraldirako

Zenbat gaztek jaso duzue beka hori? Nolatan eman dizute zuri?

Beka hori jasotzeko asmoz pertsona asko aurkeztu ginen eta froga ugari egin behar izan genuen, izan ere, sei bakarrik hautatu zituzten. Horietako bat ni izan nintzen, Tolosako Igarondo elkarteko beste bi taldekideekin batera. Orain, Igeriketako Euskal Elkartek Gasteizen duen errendimendu altuko egoitzan (CAR-en) ikasi eta entrenatu ahal dut. Guztira hamairu gaztek ikasi eta entrenatzen dugu bertan.

“BEKAREKIN JARRAITU AHAL IZATEKO EMAITZA ONAK LORTU BEHAR DIRA”

Zein entrenamendu mota egiten dituzue?

Goizeko seietan jaiki eta igeriketan jarduten dugu hurrengo bi orduetan, izan ere, bederatzietan klasera joan behar izaten dugu. Arratsaldean, 17:30ak aldera gimnasia egin eta ondoren berriro igeri egiten dugu. Hasieran gogorra da baina denborarekin ohitu egiten zara, oso gustora nago. Beka 97-98 denboraldirako eman didate eta jarraitu ahal izateko lan asko egin eta emaitza onak lortu beharko dira.

Zein eskakizun bete behar dira txapelketa ezberdinetara joateko?

Txapelketetara joan ahal izateko modalitate bakoitzean (ximeleta, estilo libre, bular eta bizkar estiloa) eta distantzia kontutuan hartuta, denbora ja-



kin bat baino gutxiagoan egin behar da igeri, bestela ezin zara txapelketa horretara joan. Nik krol, bular eta estilo librea ditut gustokoenak.

Igerilari ona izateko zein ezaugarri izan behar dira?

Igerilari on batek teknika ona eta indarra izan behar ditu. Horrezaz gain, sakrifizioa ere garrantzitsua da. Egutero asko entrenatu beharra dago, baina gustokoa bada errazagoa da hori guztia egitea.

Zein dira zure aurten denboraldirako helburuak?

Denboraldia duela bi asteburu hasi zen. Nire helburua udan egingo den Espainiako txapelketara joatea da, horretarako, aurrean lan asko egin beharko dut.

AIURRI ALDIZKARIA EGITEN DUGUN GUZTION PARTETIK ZORTE ON ARKAITZI!

ARKAITZ MORABIDEK 14 URTE BESTERIK EZ DU, HORIETATIK BOST BAINO EZ DARAMA IGERIKETAN, BAINA HAMAICA GARAI PEN LORTU DU JADA. IAZ EUSKADIKO TXAPELKETA ETA ZARAUZKO TRABESIA IRABAZI ZITUEN, BESTEAK BESTE. 95-96 DENBORALDIAN GIPUZKOAKO IGERILARI OSOENAREN IZENDAPENA JASO ZUEN. FAMILIA KONTUA IZANGO DA, IZAN ERE, BERE ANAIA GAZTEAK, IAZ, GIPUZKOAKO BIGARREN IGERILARIAREN IZENDAPENA JASO ZUEN. ORAIN, IGERIKETAKO EUSKAL ELKARTEAK IGERIKETAN JARRAITZEKO BEKA EMAN DIO ARKAITZI. ASTE OSOA GASTEIZEN PASAKO DU, IGERI EGITEN ETA 3 DBH-KO IKASKETAK BURUTZEN. DENBORA LIBREAN, GUTXI BADA ERE, EHIZA ETA ARRANTZA DITU GUSTOKO ETA BIHARKO EGUNEAN INFORMATIKAKO IKASKETAK EGITEKO ASMOA DUEN ARREN, HURRENGO HELBURU NAGUSIA ESPAINIAKO TXAPELKETARA JOATEA DA.

UR ETA LEHOR GARBIKETAK

ANTATEC
LEHOR GARBIKETA

Larra, Mantak, Alforbrak

Arrate kalea, 3 ☎ 59 39 79 ANDOAIN
(Arrate pilotalekuaren ondoan)

KIROL JANTZIAK


Liraura

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47

ANDOAIN

**TXIRRINDULARITZARI
BURUZKO III. KULTUR-
IHARDUNALDIAK
GUREA ZINEMA ARETOAN**

**Billabonako Irrintzi elkarteak
antolatuko ditu ekitaldi
guztiak**



Azaroak
3
Astelehena

19:30: Argazki erakusketaren inaugurazioa:
Gaia: **"Txomin Perurenaren historia"**.
20:15: Hitzaldia eta diapositiben emanaldia.
Gaia: **Munduko koparen klasikoak, Frantziako
Tourra eta Donostiako Mundiala.**
Hizlariak: Argazkilaria: Rafa Gomez (Bicisport).
Gonbidatuak: Iñigo Chaurreau (Polti), Jose Luis
Arrieta (Banesto), Aitor Garmendia (Once), Rafa
Olarra (COPE).
Aurkezlea: Xabier Usabiaga (EITB).

Azaroak
6
Osteguna

20:00: Gaia: **Donostiako Mundiala.**
Gonbidatuak: Abraham Olano (Banesto), David
Etxeberria (Once), Jose M^a Jimenez (Banesto),
Javier Minguez (Grupo Vitalicio), Manolo Saiz
(Once), Jaime Ugarte, Ramon Mendiburu.
Aurkezlea: Xabier Usabiaga (EITB).
Moderatzailea: Tito Irazusta (Cope).

Azaroak
4
Asteartea

20:00: Gaia: **Txirrindularitzari buruzko
prentsa.**
Ikusentzunekeo emanaldia: Txirrindularitzako eta-
pa bati buruzko bideoa EITBren eskutik: kama-
rak, helikopteroak, neurtzeko-sistemak, motoris-
tak, errealizatzaileak, txirrindulariak e.a. agertuko
dira.
Gonbidatuak: Fermin Aramendi (ETB), Marino
Lejarreta (ETB, Once), Fernando Lopetegi, Jon
Odriozola (Banesto), Benito Urraburu (Diario
Vasco), Luis Irisarri (Gipuzkoako Arbitroen El-
kargoko lehendakaria).
Aurkezlea: Dani Egaña (Radio Popular).

Azaroak
7
Ostirala

20:00: **Txomin Perurenari omenaldia.**
Txomin Perurenari buruzko dokumentala. Talde-
ko kide ohien eta kirol zuzendarien aurkezpena.
Gonbidatuak: Pedro Gonzalez (TVE), Chico Pe-
rez (Bicisport), Benito Urraburu (Diario Vasco),
Josu Garai (Marca), Fermin Aramendi (EITB),
Carlos Gonzalez Linares (Ciclismo a Fondo), Pe-
dro Delgado (txirrindulari ohia).
Moderatzaile aurkezlea: Iñaki Sagastume (kirol
kazetaria).
Ondoren afaria izango da.

Azaroak
5
Asteazkena

20:00: Gaia: **Afizionatuetatik profesionaletara-
ko saltoa.**
Gonbidatuak: Julian Gorospe (Olarra), Sabino An-
goitia (Baque), Manolo Azkona (ACR), Joseba
Gambo (Euskaltel Euskadiko lehendakaria), Pedro
Horriilo (Baque), Haimar Zubeldia (Olarra).
Aurkezlea: Xabier Usabiaga (EITB).

Oharra: *Ihardunaldietan zehar ikusentzunekeo hiru emanaldi ikasleentzat izango dira. Eva berean, sari bat izango da eskolako lanik onenarentzat. Izan ere, txirrindularitza astearekin zerikusia duen lana egingo dute herriko ikasleek.*

Maria gailetak eta ardo goxoa. 1957.



lhauterietako ostegun gizenean gailetak, goxokiak eta ardo goxoa banatzen zuen Andoaingo Udalak herrian. Haurrak egun hori noiz iritsiko zain izaten ziren ahal ziluzten goxoki eta Maria gaileta gehien jateko. Zahartxoagoak zirenek, gainera, ardo goxoa edateko aukera izaten zuten.

Argazki hau Moises herriko argazkilari ezagunak atera zuen eta Diario Vasco egunkariaren portaldan agertu zen 1957. urteko martxoan. Izan ere, festa kuriosea eta ederra antolatzen zen egun horretan herrian, nahiz eta lhauterietako gainerako egunetan ezer gutxi egin.

Argazkiko lagun batzuren izen-abizenak Jesus Mari Arakamak eman dizkigu. bera ere bertan ageri da:

- 1- Pello Artola
- 2- Eburne Marin
- 3- Jesus Mari Arakama
- 4- Mertxe Alkorta
- 5- Fernando San Jose
- 6- Ageazila

Oharra: Elxeko ganbaran edota zapala kaxan sartuta eta ongi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aiurri argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat atera eta informazio jasotzeko. Eskerrik asko.



ALBA

Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Hilero auto baten aseguru zozketatzen dugu!

Beterriko Liburua

1997



AGIRRE

Aitor Zuberogoitia

Argitaletxea: ELKAR

Generoa: biografia saiakera

Prezioa: 1.400 pezeta

Orialdak: 110

bikaina
ona
egokia

Agirre lehendakariaren biografiarekin eman dio hasiera Elkar etxeak bere biografia sail berriari, eta geroako hasierakoa bezain produktu duin gertatzen baldin badira, bildumak etorkizunik izango duela gaude. Ez baitirudi bildumaren helburua denik biografia sakon eta datu oroz hornituen ildoan barrena abiatu-rik aukeraturiko pertsonaia buruzko ahalik eta xehetasun ugari ematea, funtsezko eta oinarritzko irudia modurik errazenean burura dezagun datuak azaltzea baizik.

Egileak Agirrerekin bete-betean lortu du hori. Hortik aurrera Agirre sakonago, zehatzago ezagutu nahi duenak badu nora jo, ez baita lehendakariari buruzko libururik falta.

Zuberogoitiak oso modu egokian apaildu eta konbinatu ditu biografia osatzeko bi zutoin nagusiak: batetik, Agirre lehendakariari buruzko datu biografiko zehatzak: familia-giroa, gaztaroa, lanbidea, esparru intimoa, hain zuzen ere, garaian garaiko gertakari historiko eta politikoen bilbean oso egoki txertaturik azaltzen dizkigu. Toki berezia hartzen du gerra galdu osteko Europar eta Amerikan barrenako ibilaldi arrisku eta atsekabez beteak, hortantxe izan baitu egielak lehendakariak idatziriko "De Bilbao a Nueva York pasando por Berlín" narrazioaren laguntza ezinbestekoa. Hain zuzen ere, pasadizo horiek berebiziko indarra eta zirrara ematen diote Zuberogoitiak egindako narrazio biografikoari.

Horrenbestez, batetik lehendakariaren biografia modu egokian laburbildurik dakarrelako eta, bestetik, modu oso argi eta txukuncan garaian garaiko gertakariak apaildurik, erabat gomendagarri gertatzen da liburua irakurtzea, bai, behinik behin, lehendakariak ezer gutxi jakin eta irakurketa astunik gabe Agirreraren bizitza eta egintzak jabetu nahi duenarentzat. 1.400 pezetaren truke, harturiko lezioa ondo merke aterako zaizu, irakurle!

Horrenbestez, batetik lehendakariaren biografia modu egokian laburbildurik dakarrelako eta, bestetik, modu oso argi eta txukuncan garaian garaiko gertakariak apaildurik, erabat gomendagarri gertatzen da liburua irakurtzea, bai, behinik behin, lehendakariak ezer gutxi jakin eta irakurketa astunik gabe Agirreraren bizitza eta egintzak jabetu nahi duenarentzat. 1.400 pezetaren truke, harturiko lezioa ondo merke aterako zaizu, irakurle!




// Herriko txokoak lehiaketan parte hartu duten guztiok asmatu duzuen bezala, galde-
raren erantzun zuzena Pedro Mari Otaño
bertsolariaren Errekalde baserria eta bertako
intxaurrendoa da. Adin guztietako herritarrek
hartu duzue parte, billabonatarrek eta zizurkil-
darrak gehienak.

Lehiaketako irabazlea Miguel Mugika Billabo-
natarra izan da. Erantzuna zuzen emateaz gain,
intxaurrendoi eginiko bertsoa ere idatzi digu.
Hona hemen bertsoak dioena:

Euskal erriko lur maite artan
jaio nitzan baserriyan
itzal'andiko intxaurrendoa
dago gure atariyan
andik kanpora noiz nai erden da
maldako gaztañerriyan
edo sagarrik onenak janez
luberriko sagastiyan
arbol artian bizitu nitzan
gazte denboraguztiyan


Beraz, zorionak Mi-
guel Mugikari eta bes-
te guztiok eskerririk as-
ko idazteagatik. Ani-
mo eta zorte on hu-
rrerango lehiaketan!



*ogi berezi eta
arlezanuk
...
etxerainako
zerbitzua*

OKINDEGIA, S.L.
Leizorua, 12 - 48941 GORRIZOLA
945945451 - 945942493

OGI • GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
 • TEILAK-ZIGARRILOAK
 • HOJALDEAK • MAGDALENAK

Kulu Nagusia, 26 - Tel. 6933294 - BILLABONA

IBILALDIAK

ANDOAIN

Azaroak 9: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta Santa Barbara eta Guratz mendietara irteera.

XXXIV. MENDIZALEEN ASTEA.

ANDOAIN

Azaroak 8-16: Javier Fernandezek argazki erakusketa. Gaia: Herrialde batzuetako paisaia eta animaliak. Euskalduna Mendigoizale taldearen egoitzan arratsaldeko 18:30etatik 21:00etara.

Azaroak 9: Segura eta Zerainera bisita kulturala. Irteera goizeko 8:30etan.

Azaroak 10: Patxi Sanz eta Aitor Atxegaren ikusentzuneoak. Gaia: Euskal Herriko Mitoak, atzo eta gaur, eta Neguko Solstizioa. Euskaldunaren egoitzan 20:00etan.

Azaroak 11: Joxeba Ugaldere proiektzioa. Gaia: Eskalada. Euskaldunaren egoitzan 20:00etan.

Azaroak 12: Javier Fernandezek proiektzioa. Gaia: Erdi Ameriketako Parke Nazional batzuek. Euskaldunaren egoitzan arratsaldeko 20:00etan.

Azaroak 13: Raul Melero eta Mikel Berasaluzeren proiektzioa. Gaia: Eskalada eta ibaia jeitsiera. Euskaldunaren egoitzan arratsaldeko 20:00etan.

Azaroak 14: Urteko bazkideen asanblada orokorra.

Azaroak 15: Luxio Aranbururen proiektzioa. Gaia: Isurialdeen Banalerroa. Euskaldunaren egoitzan arratsaldeko 18:00etan.

Azaroak 16: Isurialdeen Banalerroaren 8. etapa. Irteera goizeko 7:30etan. Lekunberrin barrun jatea.

HITZALDIAK

ANDOAIN

Azaroak 7: Ongizate batzordeak jubilatuen egoitzarekin batera elikagai naturalak osasunean duen onura azaltzeko asmoz antolaturiko hitzaldian Mikel Benito izango da hizlaria. Ambrosia Olabide gizarte zerbitzuetan dagoen jubilatuen egoitzan arratsaldeko 18:00etan.

MUSIKA

BILLABONA

Azaroak 14: Javier Khrae abeslariaren musika emanaldia. Gurca zineman 22:30etan.

IKASTAROAK

ASTEASU

Euskal dantzak ikasteko aukera. Larunbatean goizeko 11:00etatik 12:00etara. Aerobicka berriz, astelehena, asteazkena eta ostiraletan gaueko 20:00etatik 21:00etara.

MERKATU TXIKIA

ANDOAIN

Metxeroak eta Kamisetak salgai: IZAR emakumezkoen lehen lagunarte errealistak errealaren kamisetak eta lagunartearen metxeroak jarri ditu salgai. Informazio gehiagorako deitu 591480 telefonora (gauetz) eta Maider eskatu.


BESTE

Azaroak 8: Bidezko merkataritzari buruzko postua, Tolosan.

KOMIKIA



G A N B A R A



T A B E R N A

Arteta Kalea 5-7 behe. ☎ 59 19 71

-----ANDOAIN-----


**Kontzertuak, Erakusketak
Antzerkia...**



**PLAZA
ETXEBERRI
JATETXEA**

- **Bokatak**
- **Eguneko menua: 1.000 pta.**
Asteazken zehar eta astebukaeran
- **Karta**
- **Berezitasuna: Etxeko postreak**
- **Erreserbak telefonoz**

Pedro Mari Otaño Plaza
ZIZURKIL
☎ 69 19 36



SAHATSA
DENDA BERRIA!

Errota, 5
☎ 69 42 79

**PREBENTZIO ETA TERAPIA
NATURALAK
KONSULTA NATURISTA
ELIKAGAI INTEGRALAK
KOSMETIKA NATURALA**

SAHATSA
Kale Nagusia, 28
Tlf.: 69 40 63



KALEBERRI


medikuntza zentrua

**Gida-agiri
eta arma baimenatarako
ikerketak!**

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 18:00tik 20:00etara.

Larunbatetan: 12:00etatik 14:00etara.



Kale Berrri, 8 bajua
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Telf.-Faxa:943-592957



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



AITZBELTZ

Arteta Kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa: 30 03 45
ANDOAIN



KALE NAGUSIA, 1
TEL.: (943) 30 08 47
20140 ANDOAIN



ARTE HEZKUNTZA
HAUR ETA GAZTETXOAK

PINTURA - MARRAZKETA - ZERAMIKA -
ARGAZKIGINTZA - ESKULTURA -
MARRAZKETA ORDENAGAILUZ.

INFORMATIKA IKASTAROAK

HAURRAK - GAZTETXOAK - HELDUAK
TESTU PROZESADOREA - KALKULO
ORRIAK

MICROSOFT OFFICE 97

Dr. Huizi kalea, 4 -Andoain- Tfnoa: 30 09 84